

## KOLDO IZAGIRRE

*Euskal Lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko  
gida-zerrendarekin*

Hordago (1981), 645 orrialde, 235 x 165 mm.

Hona hemen obra bat ohiz kanpokoa, luze-laburrez handia, eta darabilen gaiagatik guztiz garrantzitsua. Ongi etorria eman behar zaio, orain arte guti landua den alorra gorritzera datorrenez gero. Zorionak, bada, bai egile eta laguntzaileei, eta bai Hordago Argitaldariari ere.

Honekin ez dut esan nahi orain baino lehen inor gure artean gai honez arduratu ez denik. Izan dira, bai, aitzindari batzuk: P. Zamarripa (*Manual del Vascófilo*, 1914), Azkue (*Euskalerriaren Yakintza*, batez ere III. tomoan; 1945), D. Intza (*Naparroako euskal-esaera zarrak*; 1974), D. Alzo (*Estudio sobre el euskera hablado*; 1961), etab. Guztiok dakigu, gainera, Aita Mokoroa “Ibar” aspaldidanik dabilela beste bilduma bat prestatzen.

Ez eta ez dira falta izan gure artean, lokuzioek, euskara ongi erabiltzeko, duten garrantziaz ohartu direnak. “Ibar”ek, bere *Genio y Lengua-n*, 1935, aldi hartako euskal literaturan hutsune handi hori ikusten zuen: “Así, por ejemplo, ¿no hemos dejado disiparse casi del todo el espíritu del euskera en la literatura, por descuidar el modismo, el giro, la fraseología?...” (77 orrialdean). Altube jaunak ere *Erderismos* liburuaren hitzaurrean (1930, ikus X. orrialdean), aurrez-aurre jartzen ditu bere garaiko idazleen euskera zurruna eta euskaldun jatorraren mintzamolde jori-aberatsa: “Creemos nosotros que los que en el euskera actualmente hablado no ven más que un idioma que por todas partes necesita aplicar el bisturí del gramático reformador, no se han detenido nunca a escuchar el lenguaje sonoro, expresivo, rico en modismos y hasta en el léxico (apropiado a las necesidades de su vida) de nuestros excelentes euskeristas, los gizonos de la mayoría de las aldeas de Bizcaya y de Gipuzkoa, sin ir más lejos”. Gauza bera esatera datorrigu, mamiz, “Larreko” (Pablo Fermín Irigaray, ikus “Nafarroako euskal esakerak” in *Prosistas Navarros Contemporáneos en lengua vasca*. Compilación de Angel Irigaray, 1958): “Orrengatik euskaldun garbiekin ari garela, gutun zaarretan irakurtzen ari garenean, oartuago bear ginuke miletan, erraneri itzeri baiño; erranera eta itz zuurretan dago gure arbasoen jakitea, guk uste baiño aberatsago dena. Orai, gure gogoak arrotzu ondoan

egin nahi dugu euskara bat gure ortkoi edo moldetara, eta ori ez da bide zuzena. Gure gogoak biurtu bear ditugu euskararen moldetara. Euskararen ortkoiak, moldeak, euskaldun utsen baitan ditugu” (160-161 orrialdean).

Eta zertarako idatzi zuen J. A. Mogelek bere *Peru Abarka* famatua? Herriko euskarak lokuzio edo esaeretan duen joritasunaz euskaldun letradunak edo eskolatuak kontura zitezten amoreagatik. “Las saladas expresiones de nuestra lengua” dio berak (Prólogo al lector vizcaíno, 15. orrialdean).

Ez dute arrazoi faltarik honela mintzatu diren jaunak. Literaturaren alorrean lokuzioek aparteko balioa dute. Baina mundu hau gaizki ezaguna eta guti aztertua dago. Eta ez gure artean bakarrik. Berez ere esaeren mundua zaila da neurtzen eta mugatzen.

Gure artean *esaera* hitza erabili da gehienetan mundu hau nolabait izendatzeko, baina begien bistan dago zehaztasun gutitako izena dela. Zer sartzen da hor? Ez dakigu ziurki. Mugak ez daude bat ere garbi. Gaztelaniaz XVIII. mendean sortzen dute “modismo” hitza, baina, itxuren arabera, beste hizkuntzetan ez da hitz hori onartua izan, zeren lehendanik baita “idiotismo” hitza; edo eta “Idiomatismo” (Ikus LAZARO CARRETER, *Diccionario de términos filológicos*). J. Casares aste dut izan dela mundu hau gehienik aztertu duena: “Locuciones” eta “Frases proverbiales” (hots, erre-frau itxurako esaldiak, nahiz eta errefrauak ez izan) izenen pean sailkatzen du berak alor honetan sartzen den guztia (*Introducción a la lexicografía moderna*, 1950).

Károly Morvay jaunak dioenez, beste hizkuntzetakoek, gaztelaniaz ikasteko, hor aurkitzen dute oztoporik handiena. Ez da aski gramatika eza-gutzea eta hiztegi-jotzea. Baina fraseologiaz eta lokuzioez jabetzeko tresna egokien falta dago. (Ikus “La fraseología en la enseñanza del español a nivel universitario”, *Boletín de la Asociación Europea de profesores de español*, 1978. E. Knörr jaunari zor diot artikulua horren ezagutza).

Budapest-eko irakasleak erdararen ikaskuntzari buruz hori esan baldin badu, zer esan beharko genuke guk? Gaur zorionean jende dexente dabil euskaraz ikas nahian. Deklinabidea, aditza, hitzak, gramatika-legeak non ikasi bada; baina fraseologia eta lokuzioen mundu hau non ikas dezakete? Mundu hori arrotz eta guztiz ezezaguna zaie gehienetan. Hizkuntz-komunitatearen barnean jaio eta hazi denak, berez bezala ikasten ditu gauza hauek; baina besteontzat ez da bat ere erraz.

Badira, bai, euskal literaturan idazle on batzuen liburuak, alde honetatik baliotsu eta gomendatzekoak direnak; baina ikasleak, horiek bilatzeko eta probetxuz aztertzeko, halako prestakuntza bat behar du, eta, edozein modutan ere, lan neketsua da eta neke hori arinduko dion lagungarri guti aurkitzen du bere bidean.

Galde lezake norbaitek: Zergatik edo zertarako behar ditu hizkuntzak horrelako lokuzio edo errefrau itxurako esaldiak? Ez ote da aski hitzak josten jakitea, norberak esan nahi duena adierazteko? Hizkuntzalariek erantzungo dute adberbioen eskasia nolabait erremediatzeko sortu direla askotan lokuzioak. Kontuan eduki behar da, gainera, hizkuntzak hitz gutiegi izan ohi dituela, giza gogamenak dituen ideia eta ñabardura guztiak adierazteko.

Hots, giza gogai eltzeak (Lizardiren esaera erabiltzeko) gogai gehiago ditu, hizkuntzak hitzak dituen baino. Eta, azkenik, hor dago adierazkortasunaren problema ere. Hiztunak, bere ideia adierazteaz gainera, nahi, izaten du ideia hori adierazkorki eta sarkorki azaldu; lokuzioek ematen dioten kolore, bizitasun, irudi, grazia eta piperraz, alegia. Lokuzioez antzu den hizkerak ez du balio, besteak beste, horietaz jantzia denak bezanbat.

Baina hemen ere, gauza guztietan bezala, neurriak behar dira. Lokuzioen toki propioa elkar hizketa da, eta prosa literarioa. Eta asko esan nahi du, gainera, nor nolakoa den, zer kultura maila duen, etab. Santxok, atsotitzen bidez ez bada, ez daki bestela mintzatzen; D. Kijotek, aldiz, gutitan jotzen du horietara. Modismoaren *Patologi*az mintzo da Casares. Nahi eta nahi ez, lokuzioez jositako hizkera edo idazkera erabili nahi denean, hori eritasun baten seinalea dateke.

Nolanahi den, gaur modismoa gainbehera dihoakigula aitortzen du Casares-ek. Izan ere, prosa mota asko dago, zeinetan, oroz gain, argitasuna eta zehaztasuna bilatzen baita, eta horretarako, hobe da, itzul-inguru eta irudiz betetako fraseologiara jotzea baino, gauzak artez, zuzen eta sinpleki beren hitzekin adieraztea.

Honelako esaera eta esaldiak, askotan, behialako ohitura eta gertakizunen oihartzuna izan ohi dira. Gehienetan ahaztu egin zaigu edo galdu egin dugu beroiei sorrera eman zien gertakizunen kondaira. Hala ere, oraindik erabiltzen ditugu, baina gero eta gutiago. Horregatik, galduaz doan mundu bat delako, pitxi hauen bilketa eta azterketa egiteak presa du, eta presa handia. Eta horregatik zorionak eta eskerrak eman behar zaizkie bilduma honen egile eta lankideei, eta argitaldariari.

Eta diodan hizño bat bederen liburuaren kritika eginez. Bilketa handia benetan egin du egileak. Ez bakarrik orain arteko esaera-bildumak, baina gure literaturako idazle on askoren obrak ere *hustu* egin dira, eta esaerok zein tokitan aurkitzen diren esaten zaizu. Hori eskertzekoa da, ezen, duda duzunean, badakizu nora jo. Liburuan datorren esaera-kopurua benetan eskerga da.

Damurik, hutsak daude (erratak). Esaeren esplikazioak murriztegiak dira, eta ez dakit beti ongi emanak diren. Liburu zaharretako “s” altxatua, “f” bezala traskribatzen da, etab.

Erakusgarri gisa, adibide guti batzuk aipatuko ditut, ene ustez ongi edo zuzen azalduak ez daudenak.

“Praile gelditu” (223. orrialdean). “Farregarri gelditu”, esan nahi duela dio. Baina Kirikiñoren pasartea ikusirik, esaera horren esanahia beste hau dela frogatzen da, hots, “diru gabe gelditu”. Ez da gauza bera.

46. orrialdean esaera hau dator: “Belea egondako etxolan bustitako taloa baino gozago”. Eta esplikazioa: *gozo*. Izan ere, hala dator Euskalerrriaren Yakintza-n (III, 280). Baina, hasteko, Azkuek ez du jartzen *etxola*, *esola* baizik. (Ez da gauza bera! Arantzazuko euskaran *olasi* esaten da. Ikus Azkueren Hiztegia). Nik Gesaltzako Grazianori hartutako kontakizunekin atera nuen liburuskan (*Aitonaren Uzta*, 50. orrialdean) agertzen da esaera honen giltza eskaintzen digun istorioa. Istorio honen arabera, lokuzio horren

esanahia ez da presiski gozo. Beste zerbait da. “Ametsezko edo irudipenezko gozotasuna” esan nahi duela esango nuke.

“Artobero” hitzari (ikus 43. orrialdean) “harrosko”ren esanahia ezaritzen zaio; eta erdaraz “vendehumos”. Baina mila aldiz entzun dugun hitz honek beste zerbait esan nahi du, alajaiña! Erdaraz, “borono”.

Axularrengandik hartua, “garra altxatu” dakar (79. orrialdean), eta adierazpen hau ematen du: *hasiera eman*. Baina tokia ikusi besterik ez dago, esanahia guztiz bestelakoa dela jakiteko. “Khar aphur bat ailtxatu” = “levantar un poco de llama” = “airarse”. Hots, pixka bat haserretu esan nahi du (Ax 184).

173. orrialdean esaera hau dator: “Kori azenpetik zopak elkitzen ari dun” = “ése con mucho disimulo está averiguando lo que pasa”, lit. “está sacando las sopas por debajo de las berzas”. Euskalerrriaren Yakintza-tik hartua da esaera (III, 279), eta bai nik hemen jarri dudana azalpena ere. Baina gure bildumak hara zer dioen: *gauzak oker egin* (!).

Beste hau Aita Intzaren bildumatik hartua da: “Bere berean dago” (158. orrialdean). Eta honako esplikazio hau ematen zaigu: *gaixo egon*. Intzak dioena, ordea, besterik da: *Gaizki dagonaz galdetxean: ez atzera ta ez aurrera dago*.

Aita Salbatoreren *Arantzazu* euskal poematik hartzen du pasarte hau: “Lur santua auxe, santurik bada, emendik arakoxea”. Eta esplikazio bada-epadako hau ematen: *Baliodun* (!). Salbatorek hemen adierazi nahi duena argi dago, ene ustez: Kurtzipizioko kaperatik Arantzazuko elizaraino dagoen bitartea edo lur tarte, lur sakratua dela, erromesen arrenez eta hilduraz gantzutua denez gero. Non da hemen esaera?

“Atzeko laztana” (5. orrialdean). Grazianoren bertsoetan dator esaera hau. Grazianok dio Bizkaian hala deitzen diotela isatsari. Baina hau, ene ustez, Grazioanoren ateraldi bat baizik ez da. Hark ondo zekien izen hori *buztana* dela.

“Pazkoetan kutxilotxo Bergararik ekarri” irakurtzen dugu 172. orrialdean; eta azalpena: *opari bat egin*. Hau ere Gesaltzako Grazianogandik hartua da. Segur aski, Graziano beraren asmaketa bat baizik ez da. Ume ttipi bati, beragandik zerbait lortu nahi denean, egiten zaion eskaintza adierazten du.

Eta ez noa adibide gehiago aipatzera. Esaera hauek, gehienetan, inguru jakin bati lotuak egoten dira eta ohitura jakin batzuei. Ingurumari horretan bizi denari zerbait esaten diote, eta espresibitate handiaz esan ere, baina hortik kanpo bizi denarentzat, ulerkaitez izaten dira. Horregatik, argibide gehiago eman behar zaio irakurleari. Liburu honetan dauden bezala, azalpena hain eskasa eta batzutan bada-epadakoa delarik, guti balio dute.

Ene ustez, gainera, bilduman jaso diren lokuzio asko bere tokitik kanpoan daude. Adibidez, *Ekin* aditzarekin sortzen diren lokuzioak: *huts egin*, eta abar; edo *Eman-ekin*: *aditzeru eman* bezalakoak. Esaera hauek lexikalizatuz gero, eta hiztegi arruntetan dute beren lekua.

Eta gero, esaerok sailkatzeko hartu den bidea, ez da, ene ustez, ona. Oker ez banago, Casaresek egiten duen sailkapena (sailkapen zientifikoa,

nolabait esan), hartu da esaerak sailkatzeko. Baina ez da bat ere praktikoa. Hiztegitza arte bat da, teknika bat, zientzia bat baino areago. Irakurleak nahi eta behar du gauzak fite eta erraz aurkitzeko moduan egotea. Horretarako hobe da esaera multzoak semantikari begiratuz edo alfabetoko letren ordenan ematea.

Dena dela, bere muga guztiekin, hor dago obra; saio bezala, obra handia da. Axular-ek zioena esan beharko: "... enseiukarrea bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, badirudi ezen, zeren lehenak diren, zenbait huts eta falta izanagatik ere, barkhakizun direla, eta bat bederak disimulatzeko, ez ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela" (Ax 7).

*Fr. Luis Villasante*